



EGUZKILORE

Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología.
San Sebastián, N.º 5 extraordinario - Diciembre 1992.

“Droga, Bioética y Política”

Presentación. Desde el Centro Internacional de Investigación	5
SYMPOSIUM INTERNACIONAL: “Atención al drogadicto”	9
• J. Castaignede. Estrategias de apoyos preventivos	11
• T. Firchow. Toxicomanía y normativa legal en Francia	17
• J. Giménez. Alternativas sociales	27
• J. Hurtado. Consumo y prevención en el Perú	35
El consumo de drogas y su prevención en Suiza	45
• A. Messuti. Alternativas a la privación de libertad	71
• J. Pardo. Alternativas sociales	77
• G. Zabaleta. Servicios comunitarios, apuesta de futuro	81
CURSO DE VERANO: “Criminología y Bioética”	85
• A. Beristain. ¿La ética civil supera a la eclesial?	87
• F. Goñi. DNA y Herencia: Problemas éticos	97
• H.-G. Koch. Ética médica y Derecho médico	113
El control de la natalidad y el Derecho Penal	123
Una muerte digna	133
• C. M. Romeo. Las respuestas del Derecho español	143
La utilización de embriones con fines de investigación	151
El diagnóstico preconcepcivo y el diagnóstico prenatal	159
• G. Tamayo. Criminología y Bioética	167
CURSO DE VERANO: “Filosofía y Sociología políticas”	171
• A. Arteta. Actualidad de Tocqueville sobre la democracia	173
Individuo y forma capitalista de su tiempo, según Marx	189
De la piedad y la política	209
• A. Beristain. El estado no tiene el monopolio de la violencia	227
• J. R. Recalde. Orden y Razón de Estado	239
Responsabilidad en un sistema de partidos	253
Autonomía del individuo y promoción de la “vida buena”	265
MISCELANEA	277
• J. M. Rdz. Delgado. Fundamento cerebral de las creencias	279
• E. Ruiz Vadillo. La Sociología jurídica	287
• A. Beristain. G. Kaiser Doktoareari Laudatioa	297
• G. Kaiser. Kriminologiaren betekizuna	313
• VII Coloquio Inter-Asociaciones. Crimen organizado	323

EGUZKILORE

Número Extraordinario. 5
 San Sebastián
 Diciembre 1992
 313 - 322

KRIMINOLOGIAREN BETEKIZUNA LEGEGINTZ POLITIKA PENALAREKIKO

Dr. Günther KAISER Prof.

Brisgoviako Friburgo

I.

Kriminologia eta legegintz politika penalaren arteko erlazioa aztertzean honako galdera hauek egin behar dira: *zer neurritarainoko eragina duten politika kriminalean emaitza kriminologikoeak, eta horretaz harantzago, legegilearen erabakiak, politika kriminalean, zer neurritaraino irekita dauden oinarritapen, zehaztapen eta kontrol zientifikora? Arazo-multzo hau argitzeak aurretiazko akordioa eskatzen du kriminologiaz eta legegintz politika penalaz ulertzen denaz edo uler daitekeenaz.*

II.

Kriminologia, jakintzagaiarteko zientzia enpiriko gisa, krimenaz, infraktoreaz eta sozialki nabaria den portaeraren kontrolaz arduratzen da. Biktimaren interesen ezaguera eta prebentzio kriminala bezalako gai ez ere arduratzen da. Kriminologiaren funtsezko betekizunak dira fenomeno horiek etengabe behatzea, ezaguera sakontzea, baita zuzenbide penalaren modernizazioa eta emaitzen kontrolaren inguruko ikerketak ere.

Betekizunen aniztasun horretatik abiatuturik, kriminologia oinarritzko zientziatzat edo kriminologia zientzia *aplikatutzat* har daiteke, orientabide bakoitzaren arabera. Azken honek interes berezia du gai-testuinguru honetan, zeren espero bait dezakegu egokiena izan litekeela legegintz politika penalean kriminologiak duen eraginaz egindako galdera argitu eta berari erantzuteko.

III.

Kriminologiaren hasiera zein toki eta unetan gertatu den alde batera utzirik, zientziaren aplikaziorako orientabideak beti izan du garrantzia ezaguera “handiagoo-egintza hobea-bizitza hobea!” hipotesiaren arabera. Horregatik, kriminologiari kritika egiten zaio “*zientzia korrekzionalista*” gisa. Hau Lombroso, Ferri edo von Liszti aplikatzen zaie, ehun urte lehenago Beccariari bezala. Horrela zientzia pragmatikoa krimenarekin hizkuntzaz lotzera eraman zuten bide guztien hasieran “zalantza argitzailea” aurkitzen dugu. Azken sorginak erre-berriak eta tortura abolitua zuen garai bati emandako erantzuna da; zuhurrago eta zehatzagoak izateko agian hobe litzateke beste honetara esatea: “... prozesu penalean egia jakiteko tresna onartuzat tortura” baztertu zuen garaiari. Guztiarekin ere, laurogeigarren urteetara arte Nazio Batuen Antolakuntzak eta Europako Kontseiluak, zeinek bere bere komentzioak burutu behar izan zituen tortura prebenitu eta berauek bete zitezten batzorde bat eratzeko¹. Horretatik ateratzen da Ilustrazioaren idealak artean bete gabe zeudela.

Kriminalitatea “borrokatu”, “kontrolatu” edo “administratu” egin behar izateaz aparte, gogoeta politiko-kriminalak, hemezortzigarren mendean hasi zenetik, batez ere legegintz politika penalean aurkitu du ardatza. Honen azpian politika kriminalen arazoan konponbiderik hoberena praktikara eramateko itzaropena dago eztabaida eta maneiaketa errazionalaren bitartez, ahal izanez gero, zuzenbide penala baino “zerbait hobea” sortuz. Hala ere, abolizionismo deituaren arestiko joerek, zuzenbide penala hobetzera ez baizik “abolitzera” bideraturik dauden eta goragoko alternatiben bila dabilzanek, kontrako eskariekin topo egiten dute, zeinek eskatzen bait dute zuzenbide penalaren parte hartze handiagoo ingurugiroaren babesketa, ekonomia, drogen aurkako politika eta baita esparru pertsonalean ere, adibidez “familiako bortsaren” edo beste sexuko pertsonen lantokian jasaten duten hertsaketa eta, azkenik, toki publikoetan erretzea bezalako eremuetan.

IV.

Nolanahi dela ere, bilakaera honen emaitzetako bat azken berrehun urte haue-tan gertatu den justizia kriminalaren gizatiarkuntza (tortura eta herio-zigorra abolitzeko joera, askatasuna kentzen duen zigorraren mugaketa, agintari judizialen gizarte-zerbitzuen hedapena, presondegi-eraentzaren hobekuntza, etab.) da zalan-tzarik gabe. Zera aldatu da, suhartsuna, ikerketa kriminologikoaren lehen aldiko xalotasuna, zeinak ezeztatzen bait du egoera-aldaketa bat krimena eta kriminalaren behaketa hutsez, jarrera kritikoagoo hartu du portaera kriminala eta bere trataera zeinen konplexuak diren konturatzean. Jakina, hasiera batean uste zena baino askoz zailagoa da ezaguera zientifikoak praktikara eramatea. Emaitzak ez dira beti unibokoak, eta zer esanik ez haietatik sortzen diren ondorioak. Honi balioespen teoriko eta kulturalak gehitu behar zaizkio. Aurrekoaren arabera emaitza enpirikoak “argu-

1.- Komentzioaren testua, *Revista sobre Derechos Fundamentales Europeos* 16 (1989), 502-504 orrialdeetan argitaratua.

dioen arteko argudioak”² bakarrik dira. Jeneralizazio teorikoa eta kasuen analisisa era gordin eta adiskidegaitzean kontrajartzen dira. Batzuetan teoria eta praktikaren artean “errazionalitatea hautsi” egiten dela uste izaten da. Jadanik ez dira azpimarratzen kriminologia eta justizia kriminalaren artean dauden *lankidetzaz-ahalbideak*, baizik eta *zientzia eta praktikan arazoak planteatzen direneko desajarratasuna*³. Ez dago zalantzarik honetan ere, gizarte-ingeniaritzak lorturiko desajarratzearen urriek eta praktikan sentitzen den ezintasunak sortzen duen desliluraz gainera nabariak gertatzen dira teoria kritikoak jartzen dituen eragozpenak gizarte-teknologia, Foucaulten botereari buruzko ideia kritikoak “kontrola eta zigorrari” dagokionez⁴, baita beste jatorri bateko joera abolizionistak ere. Beraz, kontra eginez esaten da ezaguera, gero eta neurri handiagoan, legegile penala eta eskuz esku lan egiten dueneko administrazio judizialarentzat intereseko auzietara muga litekeela. Kontra egiten zaio kriminologia kanpotik determinatzeari, praktikarekiko bere menpekotzeari ez esatearren, zuzenbide penalari atxekitzeari, fokapen funtzionalistari eta hats laburreko ustiapen-irrikari baita praktikara zuzenduriko kriminologiaren prozedura pragmatiko eta teoriagabeari; era independentean ikertzen ari diren kriminologoentzako baliabideen murrizketa ikaratzaileari; zientziaren endekatzeari erakundeen zerbitzuko zientzia bihurtzeko, labor esateko, kritikarien arabera ia alarmagarria den kriminologiaren nagusitzeari⁵.

Kriminologia, orduan, boterearen eta zuzenbide penalaren kritikari gisa aurkeztu behar da ala legitimazioaren zientifiko gisa? Itzarotekoa denez, autoulertuntza eta inoren ulertuntza urrunduetatik *rolen arteko gatazkak* sortzen dira, baita hamai-kazailtasun ere ezaguera enpirikoa erabaki politiko-legegile edo praktikako-judizial bihurtzeko. Boterearen kritikariek, gutxienez, esku hartzen dute boterearen diskurtsoan beren analisisak zuzenbide penal estatalari egindako “erronkatat” ulertuak izatea nahitzen duten zentzuan. Zalantzarik gabe kontutan hartzekoak dira kritikak nabarmentzen dituen arrisku eta kezka, baina hurbilagotik ikusten badira, oinarrigabeak gertatzen dira orainaldi eta etorkizun aurrikusgarriak. Eragozpenek, aitzitik, kritikarien rolen lausotze bat eta identitate-arazoak areago adierazten dituzte, baita praktikarekin alderaturiko erlazio bat ere, kriminologiaren garapen hutsegina edo “jatorrizko pekatu” bat ere baino, zeren ezinezkoa bait da errazionalitate eta gizatasun handiagorik

2.- SCHÜLER-SPRINGORUM, H.: “Zum Verhältnis von Kriminologie und Kriminalpolitik”. In: *P. Nollen oroitapenezko argitalpena*. Zürich 1984, 141-156 (149); HEINZ, W.: “Kriminalpolitische Modellprojekte, Planungen, Funktionen, Wirkungschancen”. In: *Dokumentation der 13. Bundestagung der Deutschen Bewährungshilfe* e. V. Bonn 1990, 241-275 (258, 281).

3.- LÖSEL, F.: “Kriminologische Wissenschaft und Praxis: Probleme und Chancen aus empirisch-sozialwissenschaftlicher Sicht”. In: JEHLE, J.-M. (Ed.): *Anwendungsbezogene Kriminologie zwischen Grundlagenforschung und Praxis*, Wiesbaden 1986, 71-85 (74 eta aurrerantzean); DOLDE, G.: “Praxisforschung zum Strafvollzug unter besonderer Berücksichtigung des kriminologischen Dienstes”. In: FELTES, Th. (Ed.): *Kriminologie und Praxisforschung: Probleme, Erfahrungen und Ergebnisse*. Bonn 1988, 187-206 (197); MACKE, K.: “Effizienzforschung in der Bewährungshilfe — eine Möglichkeit, berufliches Handeln zu verbessern”. In: FELTES (ibid.), 257-273 (270).

4.- FOUCAULT, M.: *Überwachen und Strafen*, Frankfurt/M. 1977.

5.- Cf. KAISER, G.: *Kriminologie*, Heidelberg 1989, 833 eta hh.

imajinatzea zientifikaziorik gabe⁶. Historiak, gutxienez Amsterdamen XVI mendean sortutako erreklusorioetatik hasita, hain zuzen ere alternatiben manei u esperimentalia, edo bide berriak urratzea dela epe luzera gizatiartze-prozesua eragiten duena, horrela estatu-boterea zibilizatzen lagunduz.

V.

Nahiz eta aplikazioa zuzenduriko kriminologiaren historiak aldaketa nabarmenak ikusteko aukera ematen duen, beti aurkitzen da arretagune nagusizat asistentzia ebadlea diagnostiko eta pronostikoaren bidez estrategien eta zigor politiko-kriminalen hautespen errazional-funtzionalerako. Ondorioz, azken aldiotan gero eta garrantzi handiagoa hartu du arrakastaren kontrolak ebaluaketaren ikerketa eta inplementazioaren bitartez. Ebaluaketak presioa eragiten du argudiaketa errazional-funtzionalen alde, batez ere ebadpen-prozesu politiko-kriminallean, eta beronek beharrezko duen gardentasunean. Gainera, eraldakuntza sozial eta teknikoazko prozesuen ondorioz, nazioarte-mailan zitsu bizian gehitzen ari den arazoan zamak gero eta atzeraelikadura (feedback) bizkorragoa bat eskatzen du estatuaren eskuhartzearen bitartez. Horregatik, ebaluaketa egiaztapen eta kontrol-tresna gisa gero eta interes handiagoa hartzen ari da legegintz politika penal eta administrazio judiziallean.

Hala ere, zalantzan jar daiteke "ikerketa politiko" (Policy research) deitutik datorren fokapena, zeinak esaten bait du aurrena arazoak eta berauen definizioak eman behar direla eta gero, soluzioak. Sarritan, arazoak *soluziogabe geratu ez ezik*, etengabe sortzen diren eskuhartzeen eta berauen efektuen arabera birdefinitzen dira (adibideak: behinetaberrizko kriminalitatea, sententzia betetzarakoan atzerapena edo zorrotasun handiagoaren ukapena, sorgorkariekin zerikusia duten arazoak, birdefinitzio eta graduazioak kriminalizazioan). Efektuetako asko maila sinbolikoan bakarrik aurkitzen dira; ondorioz "zuzenbide penal sinbolikoaz" hitz egiten da⁷. Begibistakoa da arazoak funtsean konpondu gabe geratu ez ezik, birdefinitu ere egiten diren horretan, arrakastaren egiaztapen eta neurketa-prozesuak beste zailtasun batzuei aurre egin beharrean aurkitzen direla. Zuzenbide penalak dituen egintza-mekanismo hain apalak kontutan izanik, oraindik agian posible ote da gero arrakasta bezala interpreta daitekeen erlazio kausal edo funtzionalik ezartzea?

VI.

Azkeneko ehun eta berrogeitamar urteotan ikerketaren aplikazio-orientabidezko forma zehaztuak garatu dira giza zientzietan, batez ere *aditu medikuak epailea eta fiskalarekin* duen erlazioan nabarmendu direnak. Ukaezina ez bada ere, aditu fo-

6.- Ikus bedi HEINZ, W.: *Kriminalpolitische Projekte, Planungen, Funktionen, Wirkungschancen, Bewährunshilfe* e. V. Bonn 1990, 244 eta hh.

7.- HASSEMER, W.: *Einführung in die Grundlagen des Strafrechts*, München 1990, 71 eta hh.

rentsearen usadiozko eginkizuna funtsean zientzia enpiriko eta politika kriminalaren artean *ezarritako lankidetzaren eredu* bihurtu da esateko. Honegatik gertatzen da adituek ahotsa izatea legegintzan ere entzuketa (hearing) delakoaren bidez. Jakina, aditu kriminologikoa hautatzeko unean jadanik aurretiazko erabaki bat hartzen da galdetuko den edo espero den ezaguera-motari buruz. Legegintza penalaren aurreko entzuketa-prozedurek adibide garbiak eskaintzen dizkigute. Halaber, agerian jartzen dute zeinen delikatua den administrazio judicial edo legegile penalaren iritzipean uztea praktikarekiko erlazioa, berentzat muntaduna dena hautatzen uztean ikerketaren emaitzetarik eta horrela badena eta izan behar duenaren arteko bereizketa zorrotzaren eredu jarraituz. Hala ere, zientzia eta praktikaren arteko lankidetzaren eredu hori eztabaidagarri gertatzen da; zientzia eta politika kultura desberdinak direlako eta oso era nolabaitekoan bakarrik komunika daitezkeelako hipotesian oinarritzen da; izatekotan ere desjarraitasunaren edo "errazionalitatearen hausturaren" bitartez. Baina kriminologoa ezin da bere erantzukizunaz libratu bere egintzen ondorioei dagokien ezkutuka aldeniduz, zeren eta honetan ere "arrakastaren ezaguera" erakundetu egiten bait da, noski. Gainerakoan ez dago kontutan izaterik, ez erantzukizun zientifikoa, ez premia politiko-kriminalak ere, baldin eta legegile penal bakoitzak hautatzen badu edo uste duena hatatu behar badu zientifikoki landuriko ondorioetatik, eta orduan kriminologoa "harro" sentitu ere egiten dela bere emaitzetatik ondorio politiko-kriminal zeharo bestelakoak atera daitezkeelako. Hemen arrisku bat legoke, emaitza enpirikoek estalki edo ihespide-eginkizun soila izatekoa, nahiz eta legegile penala ez baliatu beraietaz. Gutxienez aitzakiatzat atera lezake jabeturik dagoela ikerketa kriminologikoaren *status quo*az. Hala ere, baldin eta ezaguera enpirikoak errazionalitate handiagoa esan nahi badu, honek ere praktikara pasatu beharko luke, hau da, legegile penalenganaino helerazi beharko litzateke. Hau da, praktika legegilearengana helerazi beharko litzateke. Zientzilari ez direnei, eta horrenbestez legegile penalarik ezaguera zientifikoaren eta praktikaren arteko erlazioa berek ezartzeko gomendatzean, emaitzen sorketan eta birsorketan aktiboki parte hartuz, asegarri izan daitezke zientzilari batzuen beharrian puristentzat, zeren bestela beldurrez jarriko bait lirateke beren doktrinaren garbitasuna dela-eta; baina jarrera horrek, azken finean, amore eman beharra dauka legegintza penalaren zientifikazio eta gizatiartze-eskariaren aurrean, horrela gero eta errazionalitate handiagoz hornituz.

Arestikoagoak diren garaietan zientzia eta legegintza penalaren arteko lankidetzan lehen postu bat hartzera iritsi dira antolaketa-forma alternatiboak, planteaturiko oinarri-ereduaz aparte. Eredu dezisionistari, ezaguera zientifikoa eta legegintza ebazpenaren arteko banaketa erabatekoarekin, eredu teknokratikoa kontrajartzen zaio, zeinak adierazten bait ditu lotura estua eta komunikazio koerlatiboaren bitartez parteon lankidetzaren aurikusten duen legegile pragmatikoaren menpekotasun nabaria. Azken eredu honek askoz aldeko gehiago ditu, nahiz eta zehazki definitzeko hutsuneak izan. Honek agerian jartzen du badenaren eta izan behar duenaren arteko usadiozko bereizketa, zuzenbide erromatarreko terminotan "da mi factum dabo tibi jus" formulatua jadanik ez da existitzen era hautsezinean. Aitzitik, ikusi izan da baliabide eraginkorra dela hasieratik legegilearen beharrianak aplikaziora zuzenduriko ikerketan sartzearen ahalbidea. Jakina, horrek komunikazio-arazoak eta hizkuntz hesiak urritzea esan nahi du, informazioa eskura izatea, baita elkarrizketa areagotzea ere.

VII.

Itxarotekoa denez ikerketa kriminologikoak dituen *aplikazio-ahalbideak* oso ugarriak dira. Zuzenbide penalaren gizarte-kontrolaren egitura eta prozesuen arabera zehaztu daitezke. Bereziki *kriminalizazioa eta deskriminalizazioaren betebeharretan* pentsatu beharko litzateke, baita zigor-sistema, zuzenbide penal formal (prozesu penal) eta santzio-beterazpenaren modifikazioetan ere bai, presondegi-sistema barne dela. Aplikazio-eremuak laburki hitz hauen bidez adieraz litezke: prebentzioa, inplementazioa, santzioa, ebaluaketa eta erreforma.

Prebentzioa inondik ere ez da agortzen prebentzio orokor eta bereziaren ulerkuntza juridikoarekin, baizik eta, zentzu zabalagoan, prebentzio primario eta prebentzio teknikoaren eremuak ere hartzen ditu, azkeneko hau garrantzi berezikoa delarik polizi agintarientzat. Itxarotekoa denez, kriminologiaren aplikazio praktikokoak santzioak zehaztearen multzoan biltzen dira, zeren eta beronen barruan sartzen bait da zentzu zabalean santzioari uko egitea, dibertsio-estrategien markoaren barruan, baita gogoeta pronostikoen eta santzioen hautespen eta zehaztapenak ere zigorra graduatzearen markoaren barruan. Zigorra betetzea ere barruan sartzen da —santzioaren beterazpenaren markoaren barruan— presondegi-sisteman zorrotzasun gutxiago izatea, askatasun baldintzatu eta legezko berrespina. Santzioak munduan isolaturik aurkitzen ez direnez gero, baizik eta pertsona jakin batzuei buruzkoak izan eta erakunde jakin batzuek gainbegiratu eta ezarri beharrekoak direlako, hauei ere ikerketaren esparruan sartzea dagokie. Azkenik, hau krimenen biktimei ere ezartzen zaion zerbait da, zeren, biktimak kontutan hartu gabe, delitugileen trataera egoki batera mugatzen den santzio-politika, gaur egun ez bait da ia onargarri gertatzen.

Hala ere, onartu beharra dago *konkretuki burutzen diren zeregin eta ikerketa-proiektuek*, oro har, zerikusi handirik ez dutela izaten gogoeta estrategiko eta kontzeptu traszendenteekin, hau da, eguneroko eskabideez aparte gauzatzen direla. Hau baliteke oso asegarria ez gertatzea sistematikotasunari dagokionez, baina prozedura praktikaren premia larriek eragina da eta ulergarria gertatzen da. Horregatik, azken hogeitau urteotan garrantzia hartu dute, egungotasuna duten gaien ikerketek, hala nola bankuen asalto eta segurtasunak eta kriminalitatean gerta litezkeen aldaketak; zuzenbide erreformatua osatzeak, ekonomi, ingurugiro eta sorgokari-gaietan; dibertsio-estrategiak, batez ere gazteen zuzenbide penalean; fiskaliaren eginkizunak, arakapen eta epaiketen egiturak; “mahai-inguru” saioek, baita gizarte-terapiak, betiko kateak, horditasunean trafiko-delituak egiten dituztenen berrezkuntzak, egun/isun-sistemak, elkarterako lana eta delitugile/biktima-konpentsazioan egindako saioek⁸. Talde objektiboa, batez ere, administrazioa judizial edo poliziala da, baita legegilea ere. Hauek, lehenengo eta behin, zientzian sistematizaturiko esperientziaren baitan daude legegintz errazionalitatea gehitzeko. Gainera garrantzizkoa da ezaguera empirikoa iritzi publikoarentzat arauetikiko obedientzia eta justizia kriminala onartzeari dagokionez.

Baina zientzilariak eta tarteko diren praktikaren profesionaliak era homogenoan parteon arteko lankidetzaren ereduari datxezkonean, *modu desberdinean ebaluatzen*

8.- Cf. KAISER (5. oharra), 841; HEINZ (6. oharra), 245 eta hh.

dira praktikara zuzenduriko ikerketaren ahalbideak eta emaitza. Legegileak eta administrazioak itxuraz pozik hartzen dutena, praktikan murgildurik daudenentzat zama astuna besterik ez da izan ohi, inolako onurarik edo errazionalitate handiagorik aurkitzea lortu gabe. Adibidetzat ekonomi delitu nagusiak atzematea aipa daiteke nazio-mailan eta irizpide uniformeen arabera. Gauza bera aplikatzen zaio espedienteen analisiari iharduera kriminalengatik sorturiko utilitateen konfiskaziorako ere; errendimendua motibagarri izan liteke legegilearentzat, baina zama besterik ez da espediente horien ebaluaketa burutzen duen pertsonarentzat. Antzeko zerbait esan liteke presondegi-sistemaren barruko ikerketari dagokionez sortzen diren premia desberdinei buruz ere. Sostengu zientifiko baten premia goi-mailako funtzionariengan nabari da batipat, eta honek seguraski badu zerikusirik iritzi publikoaren presio eta kritikarekin, eta horren ondorioz egintza pertsonaletarako oinarri zientifikoa bere alde izatearen premiarekin. Aitzitik, herestegietan beretan lan egiten duten funtzionarioek, oro har, ez dira bait ere pozik agertzen (egoera hau bestelakoa izan da hirurogeitamargarren urteen hasierara arte). Emaitza zientifikoek badirudi halako ziurtasun-gabezia bat sortzen dietela, eta ikerketa kriminologikoa gehigarritzko zama bat dela uste izaten dute, ordura arteko beren betebeharrak profesionalenez gain⁹.

VIII.

Hurbilagoetik azter dezagun zer erlazio dagoen aplikaziora zuzenduriko *ikerketa eta administrazio judizial edo legegintzaren artean, hurrenez hurren*. Seguraski, maila edo komunikazio-eremu honetan aurkitzen dira aplikaziorako ikerketa-proiektu gehienak. Halaber, baliteke hemen inbertitzea ikerketarako baliabide-kopuru handienak helburu jakin baterako izendatuak. Testuinguru honetan ez da legegile nazionalaren laguntza bakarrik pentsatu behar; Europako Kontseiluak berak ere, zeinaren iharduerek beren baitan hartzen duten, besteak beste, politika kriminala, ikerketa kriminologikoen emaitzetara jotzen du teoria kriminal eta gobernu-iharduerei babesa emateko¹⁰. Horrela, adibidez, lehenago aipaturiko torturaren aurkako europar komentzioa eta duela gutxi indarrean sartu dena, besteak beste, ekimen eta laguntza zientifikoei esker sortua da. Iharduera kriminologikoak babes berezia hartzen du Europako Kontseiluaren aldetik ikerketa-beka eta Europako Kontseiluaren estatukideetan burutzen diren ikerketa kriminologizko proiektuei buruzko informazio-trukerako nazioarteko boletin bat argitaratzearen bitartez¹¹.

Baldin eta iritzi publiko eta nazio-mailako legegintz prozesuetan behin eta berriz nabarmentzen bada, sarritan garestiak diren politika kriminaleko gaietan hartzen diren erabakiek oinarri zientifikoa izan behar dutela, justizi ministraritzak beharturik da-

9.- ROTTHAUS, K.-P. : "Kriminologische Forschung und Strafvollzugspraxis". In: JEHLE (3. oharra), 105-113 (109); LÖSEL (3. oharra), 74, 78; DOLDE (3. oharra), MACKE (3. oharra), 270.

10.- TSITSOURA, A. : "The role of the Council of Europe in the field of crime policy". In: *Council of Europe: 4th Conference on Crime Policy. Conference report*. Strasbourg 1991. 20-30 (21, 24 eta hh.)

11.- TSITSOURA (10. oharra), 26.

go, ahal den neurrian, informazio kriminologikoaren defizita gutxitzera erabaki politiko-kriminalak hartzerakoan¹².

Zuzenbide penaleko gaitan legegintz proiektuak egiteko, honek esan nahi du aurrena argitu egin behar dela zer egoera erreal dagoen eremu erregularrean eta arrakasta-kontrolak egin, proiektu horiek amaitu eta gero, ezarritako helburu politiko-kriminalak lortu diren jakiteko. Aurrekoaren adibide dira, ekonomi delitu nagusiak; neurri ez-instituzionalak eta dibertsio-estrategiak gazteen zuzenbide penalean; presondegi-prebentiboaren erabilera, baita iharduera kriminalen ondorioz sortutako utilitateen konfiskazioa ere, soslai soziologiko eta motibazioen analisia ezkerreko zein eskuinaldeko delitugile terroristen kasuan eta ikerketaren *status quo*aren dokumentazio kritiko-analitikoa prozesu penalar dagokionez. Halaber, aipatzekoak dira dibertsio-mailan eta delitugile/biktima-kompentsazioarenean burutu diren esperimentu ugariak, zeinak legegilearen interesetan proposatu, bultzatu eta jarraituak izan diren, besteak beste.

IX.

Laurogeigarren urteez geroztik interes handia hartu du *delitugile/biktima-kompentsazioa eta kaltea ordaintzearen ideiak* santzio alternatiboen testuinguruan. Horri buruzko debateek eratzten dute funtsean politika kriminalean nazioarte-mailan egiten denaren muina¹³. Legegile alemaniarra ez da alferrean egon; santzioak zehaztu eta mailakatzearen esparruan erregelamentazio bat sortu du —bai helduen zuzenbide penalean eta bai gazteenean— kontutan hartzen saiatuz delitugileak egin behar duen ahalegina kaltea ordaintzeko, santzioa kenduz edo gutxituz. Kriminologoen eginbeharra da parez-pare ikerketak egin eta legegile eta praktikaren profesionaliei bilakaera eta lortutako emaitzen berri ematea¹⁴. Alor honetan orain arte lortutako ezaguerek adierazten dute delitugile/biktima-kompentsazioak zeregin adiskidetzaila duela eta, gainera, gutxitu eta ase ere egiten duela jendearen kompentsazio eta zigor-premia indemnitazio-modalitateen bitartez. Bestalde, biktimaren babeserako legea deiturikoaren xedapenen osapenari buruzko lehen analisisiek erakusten dute praktika forentsean gauza gutxi aldatu dela biktimaren egoerari dagokionez eta itxuraz ez dela asetzen kaltetuaren informazio-premia.

12.- Ikus bedi HOBE, K.: *Kriminologie im Bundesministerium der Justiz*. Argitaragabea. Hannover 1988, I; ikus halaber HEINZ (6. oharra), 249 eta hh.

13.- HIRSCH, H. J.: "Stellung des Verletzten im Straf- und Strafverfahrensrecht. Über die Grenzen staatlicher Aufgaben". In: A. Kaufmann *oroitzapenezko argitalpena*. München 1989, 699-721; ESER, A.: "Zur Renaissance des Opfers im Strafverfahren. Nationale und internationale Tendenzen". In: A. Kaufmann *oroitzapenezko argitalpena* (ibíd.), 723-747.

14.- ALBRECHT, P.-A.: (Ed.): *Entformalisierung des Rechts*. Berlin et al. 1990, 43 eta hh.

X.

Laburbil ditzagun gogoetak:

Lehenik: Kriminologia legegintz politika penalean aktibo bihurtu nahi bada, hori izango da praktikara zuzendutzat hartu eta legegile penala prest badago emaitza kriminologikoak onartu eta legegintzako praktikan sartzeko. Batzuetan, ezaguera enpirikoak legegilearen borondatearen erabidean agian betekizun formal hutsa du, zeren beste interes eta ebaluaketa batzuek lehentasuna bait dute. Kontrako *Zeitgeist* (aldiaren izpiritu) baten eraginak izaera metaenpirikoa duten konbikzio eta beti eskura dagoen izaera fiskaleko presioen argudioa, sarritan, askoz ondorio handiagokoak izaten dira zientzia enpirikoaren laguntzarenak baino. Beraz, ikerketa kriminologikoa legegintz prozesuaren barruan borondatea eratzekoan indar eragile bat besterik ezin daiteke izan.

Bigarren: Aplikaziora zuzenduriko kriminologia garrantzikoa da, baina arazotsu ere bai, zeren eta zientziaren eta praktikaren egiteko eta betekizunak desberdinak bait dira. Sortzen diren zailtasunak hain handitzat jotzen dira, zenbaitetan, non kriminologiak zientzia aplikatutzat duen betekizuna ia-ia baztergarri gertatzen den, ilegitimotzat eta onartezintzat jotzen delako. Baina kritikari jaramon eginik ere, profesionari edo politiko-kriminalaren irizpidearen esku utzirik ere emaitza enpirikoak erabiltzea edo ez erabiltzea, zientzilariak ezingo luke bere burua erantzukizunetik libratu. Itxuraz dibergentzia dago zientzia eta praktikaren problematikan arteko desjarraitasuna hautemateko eran edo bi kulturen arteko errazionalitatearen hausturan. Urteetan zehar dauden lankidetzara era diferenteak direla-eta, psikiatra, psikologo eta juristek badi-rudi elkarren artean errazago moldatzen direla soziologoak eta praktikaren profesionariak baino.

Hirugarren: Politika kriminal praktikoan betekizun asko eguneroko politikaren beharrianek erabakitzen dituztenez gero, zaila da epe luzerako ikerketa kriminologikoa emankorra gertatzea, zeren ezin bait ditu behar bezain bizkor ebatzi unean uneko premiek eskaturiko ikerketa-gaiak. Hain deitoratua den defizit kriminologikoa gutxitzeko, gai horretako erabakiei dagokienez, epe luzerako ikerketa behar da, ia erre-berbakoa, premia dagoenean bere emaitzetara jo ahal izateko. Hala ere, kontutan hartzen bada ongi informaturiko aurrikuspen batekin ere beti ezin direla aurreratu eta behar bezala ebatzi laurogeitamargarren urteetako ikerketaren eskakizunak, beti hartu beharko dira erabakiak praktika politiko-kriminalean informazio partzial edo ezosoan oinarriturik. Hemen aplikazioari buruzko ikerketa bat a posteriori bakarrik bihur liteke aktibo, hau da, inplementazio-ikerketaren eta lehen aipaturiko ebaluaketa-aren bitartez, izan ere ikuspegi enpiriko batetik arrakasta balioesteko aukera ematen bait du.

Laugarren: Zuzenbide penalaren sistema etengabeko aldaketan dagoenez gero —legeen ugaritasunak argi eta garbi erakusten du hori— ikerketa ia beti errealitatearen atzetik ibiltzen da. Arrazoi horregatik bakarrik itxuraz mugagabea den ezaguera enpirikoaren premia dago une horretan indarrean dagoen justizia kriminaleko egoerari dagokionez.

Bostgarren: Emaitza kriminologikoak, nahi bezain zalantzarri eta erratutzat jotzen direlarik ere, gutxienez eginkizun garrantzitsu samarra izan dute azken hamarkado-

tako eztabaida politiko-kriminallean. Ikerketa zientifiko-pragmatikoaren eta erabaki juridiko-penalaren arteko koerlazioak bereziki zuzenbide penalak biologia eta medikuntzaren eremuetan egindako aurrerapenetatik hartzen duten eraginean dautza, bizitzaren hasiera eta amaierari dagokionez, baita eskuhartze bioteknologikoen onargarritasunari buruzkoan ere. Beste aplikazio-kasu bat emaitza kriminologiko-biktimologikoei biktima babesteko legerian duten eragina da. Halaber, kriminologiak usadiozko politika kriminaleko murrizketa eta aurriritzi-sail bati errepararazi dio. Batez ere idun zuriko, zifra iluneko kriminalitatean eta baita hautespen eta estigmatizazio-prozesuetan, baita biktimaren posizio defizitarioetan ere, berdintasun eta justiziak —nahiz eta ez izan berarizkoak, bai ordea enpirikoki egiaztatgarriak— izan dituen murrizpenak erakutsi ditu usadiozko praktika penalean. Ondorioen orientabide juridiko-penalaren detekzioa, baita santzioen graduazioan eta izapide informaletan sortzen diren berdintasun-gabeziak ezer baino lehenago orientabide enpirikoaren analisiari zor zaio; alderdi hauek politika kriminaleko ezagueren multzoan sartu baino lehenagokoak dira. Zuzenbidea eta errealtatea zuzenbide penalaren erreformaren ondoren konparatzea, edo ebazpen legalen egitarauaren kontrola eta berauen implementazioa ezinezkoak lirateke ekarpen zientifiko-enpirikorik gabe. Beraz, orokorrean hitz eginez, orientabide enpiriko-errazionala nagusitu egin da. Badu oinarririk uste izateak kriminologia, zuzenbide penala eta legegintz politika penalaren arteko konbergentziak, historiaren aurreko beste edozein garaitakoak baino handiagoak direla gaur egun.